

Gasteiz emakumezkoen teniseko munduko hiriburua izango da uztailean

World International Tennis Vitoria-Gasteiz egingo da lehenengo aldiz Arabako hiriburuan; nazioarteko torneo hori WTA munduko zirkuiturako puntuagarria izango da, ITF-Nazioarteko Tenis Federazioaren ikuskaritzapean

Vitoria-Gasteiz, 7 de mayo 2019. LMundu osotik etorritako 16 eta 29 urte bitarteko 150 jokalaria inguruk —zeinak WTA sailkapenaren 200 eta 700 lekuen artean baitaude— hartuko dute parte WORLD TENNIS TOUR VITORIA-GASTEIZ txapelketaren lehen edizioan, La Peña Vitoriana klubaren instalazioetan. Munduko zirkuiturako puntuagarria izango da, eta ITF-Nazioarteko Tenis Federazioak ikuskatuko du.

Horrelako nazioarteko tenis txapelketa sortuta, ekitaldi bakar eta berritzailea ezarri nahi da, zeinak kirol horren profesionalen eta zaleen arteko topagune bat sortzeko beharrezko diren baldintzak eskainiko baititu. Kirol eta antolakuntza aldetik mundu osoan aitortutako ekitaldiak eskaintzen duen aukeraz gain, azpimarratzekoa da horrek hirian izango duen eragin ekonomikoa, maila publiko zein pribatuan.

– Zergatik nazioarteko txapelketa bat?

Tenis Txapelketa Nazionalaren 47. edizioa egin ondoren, José María Ortega “Pochín”-ek, Espainiako Federazioak eta EAEko Federazioak Gasteizen jarraitutasuna izango zuen nazioarteko tenis txapelketa bat egitearen aldeko apustua egin zuten.

Iradokizuna azterturik, emakumezkoen “I. World Tennis Tour Open Ciudad de Vitoria-Gasteiz 25.000” antolatzea erabaki zen. Izan ere, maila horretako txapelketetan, diruzko sariak 25.000 dolar dira orotara. ITF World Tennis da 2019an egitekoak diren ITF txapelketa guztiei emango zaien izen berria, junior zirkuitutik hasita gizonezkoen 25.000 dolarreko eta emakumezkoen 100.000 dolarreko txapelketataraino; horrenbestez, Arabako hiriburuko torneoak 3. mailan legoke garrantziari dagokionez, WTA Tourraren eta 60.000 eta 100.000 dolarreko txapelketen atzetik.

-Arabaren ez da inoiz izan nazioarteko tenis zirkuituko txapelketarik

Euskal Autonomia Erkidegoan teniseko nazioarteko lau lehiaketa daude une honetan, lau Bizkaian eta bat Gipuzkoan.

-Bakio (WTF 25.000, gizonezkoak).

-Bilbo (WTT 25.000, gizonezkoak eta emakumezkoak).

-Donostia (WTF 25.000, gizonezkoak).

-Txapelketaren kirol-datuak

Uztailaren 22tik 28ra jokatu da txapelketaren lehen edizioa, La Peña Vitoriana-ren instalazioetan, azalera gogorreko lau pistatan. Banakako eta binakako kategoriak jokatu dira.

Torneoaren irabazleek, banakako zein binakako kategorietan, WTArean 50 puntu lortuko dituzte; txapeldunordeek, 30 puntu; finalerdira iristen direnek, 18 puntu; final-laurdenetara iristen direnek, 9; final-zortzirenekoek, 5 puntu; aurreiazko fasekoek, 1, eta azkenengo aurreiazko fasekoek, 1.

Banakako multzo nagusian 32 jokalaririk izango dira: 17, zuzenean onartuak; 6, aurreiazko fasean sailkatuak; 5, ITFren sailkapena dutenentzat erreserbatuak, eta 4, "wild card" bidez antolakuntzak gonbidatuak, horien artean, Arabako sailkapeneko 1. lekua duen Marta García. Banakako aurreiazko fasean 24 jokalaririk izango dira: 20, zuzenean onartuak, eta 4, "wild card" bidezkoak.

Binakakoetan 16 bikotek osatuko dute txapelketaren multzo nagusia.

Orotara 31 partida jokatu dira banakoen azken fasean, 18 partida banakoen aurreiazko fasean, eta 15 partida binakakoetan.

Aurreiazko faseko partidak 3 setetako onenera jokatu dira: 2 setetan tie-break izango da, baita match tie-break bat ere. Azken fasean, 3 setetako onenak irabaziko du, tie-break dagoelarik.

–Sariak

Banakakoetan, sari hauekin emango dira: txapelduna, 3.542 euro; txapeldunordea, 1.896 euro; finalerdietan, 1.046 euro; final-laurdenetan, 605 euro; final-zortzirenetan, 367 euro; lehen errondan, 220 euro; azken aurretiazko fasean, 113 euro, eta lehen aurretiazkoan, 61 euro.

Binakakoetan: txapeldunak, 1.293 euro; txapeldunordeak, 647; finalerdietan, 323 euro; final-laurdenetan, 176 euro, eta final-zortzirenetan, 118 euro.

-Nazionalitate nagusiak

Ia 20 herrialdeetako jokalariek hartuko dute parte; gehienak leku hauetatik etorriko dira: Espainia, Grezia, Paraguai, Argentina, Austria, Alemania, Errusia, Holanda, Frantzia, Norvegia, Brasil, Mazedonia, Venezuela, Italia, Erresuma Batua, Belgika eta Mexiko.

– Jarduera paraleloak

uztailaren 20an (larunbata), txapelketa Gasteiz hirira zabaltzeko asmoz, jarduera bat antolatuko da Andre Maria Zuriaren plazan, mini tenis-pistak erabiliz; La Peña Vitoriana-ko entrenatzaileek eta txapelketako jokalariren batek hartuko dute parte.

–**Proam tenis txapelketa:** Alavés, Baskonia eta Araski taldeetako jokalariek hartuko dute parte.

–**Haurrentzako ikastaroa:** uztailaren 27an (larunbata), 10:00etatik 11:00etara, haurrentzako ikastaro bat egingo da, klubeko 6 tenis-pistak bete eta tenisean ikasi nahi duten 100 haur baino gehiago biltzeko asmoz. La Peña-ko entrenatzaileek zuzenduko dute, eta txapelketan ari diren jokalariek ere hartuko dute parte.

–**Gurpil-aulkiko tenisaren erakustaldia:** uztailaren 28an (igandea), finalaren aurretik.